


Astekaria



elgoi

BIDE-EGIN



Gazteak gizarteratzeko eskola

IRAKASLE

ELKARTEA

ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR



auto-eskola

*1/3ena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*



ZELETA

Barazkiak

Ez diezazutela ziririk sartu!



JATORRIZKO KALITATEA



Egunero batu eta ontziratzen dugu.

Erabateko kontrola produkzio eta hautaketan.

Tratamendua 0,0.

BETIKO DENDETAN AURKITUKO GAITUZU.

ZELETA BASERRIA - San Migel Auzoa - ELGOIBAR

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



GURELESA



SANTA ANA, 41 - ☎ 74 10 41 - 74 11 32

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabaló, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.700 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa funtzionala
Fundación Kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Ni ustela?

Behin artikulu bat irakurtzen hasi eta irainak entzun behar izatea ere... Positiboagoa izan nahi nuen, baina errua masajistik dauka. Elgoibartik urrun (badaezpadan) eta eguraldiaren gaia agortuta, giharreak tiratzen nengoela, krask handik eta klask hemendik, kristoren diskurtsoa bota zidan ustelkeria edo korrupzioa zela eta ez zela: Roldan eta lagun guztiak ez dakit zer eta badakit nor, politiko guztiak berdinak zirela, horrelako lapur, ustel edo korrupzio guztiei ez dakit zer egin beharko litzaiekeela (zein krudelak izan daitezkeen masajistik!)... Nik masajistei eta dentistei ez diet inoiz kontrarik egiten eta, dena amaitutakoan, nik zenbat zen galdetu eta berak "fakturagaz ala faktura barik?" erantzun.

Neuretzat ere, antzina, ustelek edo korrupzioek ("legezko prozeduretatik kanpora eta onura pertsonalen truke dihardutenak") "erreturatu robot" erraza zeukaten: gizonezkoa, politikoa, 40tik gorakoa eta andre gazte hartu berria. Horrelakoak dira-eta komunikabideetan irteten direnak. Ez ziren, bada, irtengo lantokiko telefonoa eurena balitz bezala erabiltzen dutenak, dirutxo batzuk deklaritzen ez dituztenak, ordaindutako lana edo zerbitzua erdizka beteta uzten dutenak, ez dakit zein lagunen bidez zerrendako besteak aurreratzen dituztenak, etxea eskrituraztean gutxiago deklaritzen dutenak, ez dakit nor ez dakit non ezagutzen dutela-eta, etxeko obra ez ordaintzea lortzen dutenak, auzoko batzordean sartu eta berarentzako kaminoa konpontzea lortzen duena, fotokopia guztiak dohainik lortzen dituztenak, influentzien bidez familiako auto-enpresa ez ukitzea lortu

dutenak... Ez dakit horrelako txikikeriak prebarikazioa, iruzurra, influentzia-trafikoa ala zer diren. Ezjakinok ustelkeriaren zakuan sartzen dugu dena.


Baina, antza denez, ustelkeria eta lapurreta kantitate kontua dira guretzat. Etika aldetik, txartzat jotzen duguna ez omen da zer-bait txarra egitea, kantitate batetik gora egitea baizik. Proporzioari begiratu gero, ordea, Roldandarrek euren eskuetatik pasatu denaren %8-10a eurentzat gorde dute; nik ezagutzen ditudan batzuek lan-orduetatik %10etik gora gordetzen dute eurentzat edo fakturetatik %20tik gora BEZ gabe egiten dituzte. Azken batean, batzuek eta besteak ahal izan duten neurrian usteldu dira.

Agian, ustelkeria, gure artean, uste baino onartuago dago; probetxua guretzat den bitartean, jakina. Agian, ustel tipikoaren erretratu robotari beste datu batzuk gehitu beharko genizkioke. Lehenengo, zoroak legez, hau guztia egia dela pentsatzen du; "jendea" (ni ez, besteak) horrelakoa dela. Bigarren, defentsa gaintuzteza dauka antolatuta: talde baten ordezkari bihurtzen da!"). Hirugarren, honelako diskurtsoa dauka: goikoek-egiten-eta-lapurtzen-dutenaren-alboan-ni ez-naiz-eurak-baino-legalistagoa-izango-ezta? Eta erretratu robot honetan jende gehiago sartuko ginatete.

Izan ere, primerakoak gara denok geure burua zuritzen eta inoren buruko zorria ikusten. Ze... nik, jakina, sermoi hau eginda, masajistari "fakturarik gabe, noski" esan bainon.

Edu Iriondo

Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



? GALDERAK

Ba al dago San Lorentzotik Upai-Goixira dagoen bidea konpontzeko intentziorik?

Udalarekin egon gara eta esan digutenez, orain arte ez dute inolako eskaerarik jaso. Eskaera jaso ostean aztertuko dutela gaia azaldu digute.

KEXAK

- "San Rokera igotzeko zubiaren inguruan demaseko **usain txarra** egoten da. Inguruan bizi garenek hau zergatik gertatzen den eta zerbait egiteko asmorik dagoen jakin nahi dugu".

- Honako kexa hau helarazi digu haur batek: "**Umeen jaialdietan ez dute urik banatzen**, beti Coca-Cola eta Fanta, eta edari hauek gustatzen ez zaizkigunik bagaude. Jaialdi batean ura eskatu eta iturrira bidali gintuzten".

TXALOAK

- Ikastolako 4B mailakoek **Eroski Consum** txalotu nahi dute kutsatzen ez duten poltsak asmatu dituztelako.

- Irakurle batek deitu digu **BARREN**en **Pello Arrietak** idazten duen atala "benetan interesgarria" iruditzen zaiola esateko.

ESKUTITZAK

Begirazazue Karakatera

Oh, herri. Altxa ezazu begirada eta egin so Karakatera lotsak uzten badizu.

Inozo batzuk izan ginen Karakate Bizirik plataforma sortu genuen Soraluze eta Elgoibarko gazteak telekomunikazio zentrua eta honen atzean dauden interesak geldiaraziko genituela pentsatu genuenean. Oposaketa sendo batekin bakarrik gelditu zitekeen Karakateko Parke Naturalari egindako eraso, baina bi herrietako gehiengoak beste alde batera begiratzea nahiago izan zuen. Mendizaleek ere ez zuten ezertxo ere egin. Non zegoen Morkaiko eta Euskal Herriko Mendi Federakundeko lehendakaria den Pako Iriondo? Tutik ere ez dute esan mendiari eginiko erasoari buruz. Zergatik? Ez legoke gaizki azalpen bat emango balute.

Soraluzeko Udalaren jarreraz, bere arautegiari muzin eginaz, -142, 145 eta 147. artikulua zertarako hitz egin. Antzerakoa Elgoibarko Udalaren jarrera, eraikuntzaren alde egin eta informazioa ukatzen duenari: martxoaren 13an gaiari buruz hitz egin zen batzordeetako aktak eta Karakatek Elgoibarrera egin nahi duten kanalizazioari buruzko informazioa eskatu genuen eta oraingoz ez dakigu ezer. Ekainean erantzuteko epe legala amaitzen

da, eta erantzuten ez badute salatu egin beharko dugu.

Euskalnet, Euskal Herrian kable bidezko telekomunikazio sare bat jartzeko Eusko Jaurlaritzak sortutako elkartea da, hiru kutxek -Vital, BBK eta Kutxa- parte hartzen dutelarik. Iberdrolak ere bere zatia du negozioan. Orain gutxi akordio bat sinatu dute bazkide teknologiko batekin, US-WEST estatubatuar multinazionalarekin. Ertzantzak bere %10a izango du eraikinean.

Hauek guztiek irabazten dute. Karakatek galtzen du. Guk ere galtzen dugu. Eta zuri, oh herri, zer axola zaizu? Eraisketa orain!!

Karakate Bizirik Plataforma

ESKUTITZEI BURUZKO OHARRA

Erredakzioan jasotzen diren eskutiz guztiek idazten duenaren izen-abizenak, N.A.N. zenbakia eta telefonoa eduki beharko dituzte. Argitaratzerakoan, igorleak hala eskatzen badu, inzialak soilik ager daitezke. Atal honek duen espazio murrizta dela-eta, **BARREN**ek eskutitzak 20 lerro baino gehiago ez izatea gomendatzen du.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Esperanza Unzillak** lagatakoa da. Antzematea erraza ez bada ere, erretratua Debako hondartzan aterata dago, baina ez da atzo goizekoa. Noizkoa den ez badakigu ere aproposa iruditu zaigu hondartza sasoia hasi berri zaigun une honetan argitaratzea.

Erretratua benetan bitxia da eta garbi ikus daiteke orduan ez zutela eguzkitako krematan asko gastatuko. Izan ere, besoak eta bernak baino ez zituzten ipintzen eguzkitan. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Ikus dezagun zein diren hondartzazale hauek:

Tente, ezkerretik hasita: **Migel Ajubita** (†), **Pru-dencio Etxaniz** (†), **ezezaguna eta Estanis Azkue** (†). Hondarretan jarrita: **Sinfoniano Abascal** (†) eta **Sebastian Unzilla** (†).



HISPANIA  **ZURICH**

J. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

BATZOKIA


JATETXEA

ETA

TABERNA

P. Muguruza 8. ☎ 74 03 21

Gizarteratze prozesuan bidea egiten



Muguruzako eskola zaharretan kokatzen da Bide-Egin. Hemen, Garantia Sozialeko Programan 90 ikasle daude joan den urteko abendutik. Hauek guztiak, 16 eta 19 urte arteko neska-mutilak, sukaldaritza, igeltseritza, elektrizitatea eta egurgintza ikasteko aukera dute. Bertara hurreratu gara eta iaz lokal hutsak zirenak erabat txukundu eta atonduta aurkitu ditugu. Gela bat EPAko ikasleekin konpartitzen dute. Halere, ikasitako guztia praktikan jarri eta eskolarako aprobetxatzen dute: mahaia eta apalak, hormak egin dituzte lehen izugarri handia zen lokala gela ezberdinetan banatuz, zirkuitu elektrikoak hobetu dituzte...

Bide-Egin orain urtebete sortu zuten Ikasbat-eko langile ohi batzuek. Deba bailarako Udalek Garantia Sozialeko Programak aurrera eraman nahi zituztela eta, lehiaketa konbokatatu zuten eta Bide Egin-ek eskuratu zuen. Gestio ekonomikoa Udalek eta Diputazioko Hezkuntza eta Lan saileko Kontsorzioak daramate. Hau da, Bide-Egin-ek ez du funtzionamendu autonomoa, nolabaiteko harremana dago hauen, udaleko ongizate sailen eta aipatu Kontsorzioaren artean.

Garantia Sozialeko Programak

Zer dira, ordea, Garantia Sozialeko Programak? Pello Aizpurua Bide-Egin-eko kideak azaldu digunez, “arlotan desberdinetan arazoak dituzten neska-mutilei zuzendutako programa da”. Eskolan, familian edo gizartean arazoak dituzten 16 eta 19 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Tailerren bidez, programa hauen helburua, “neska-mutil horiek sozializatzea, lan mundura hurbiltzea eta trebetasun batzuk hartzea da, bai lan munduan, bai pertsonalki”.

Muguruzako eskola zaharrean daude eta ikasurte honetan 90 ikasle

inguru daude Elgoibar, Eibar, Soraluze, Bergara, Deba, Mutriku eta Ermu-tik etorriak.

Lau tailer daude

Garantia Sozialeko programan sartu aurretik, neska edo mutil horrek bere herriko Ongizate Sailera jo behar du eta hor kasu konkretu bakoitza aztertzen da. Onespena badute, Bide-Egin-en azaltzen zaie zein diren aukeran dituzten tailerrak, nola funtzionatzen duten, lokala erakusten zaie... Hortik aurrera eurek erabakitzen dute hasi ala ez.

Hiru area daude: tailerra, instrumentala edo oinarrizko heziketa eta tutoria. Igeltseritza, egurgintza, elektrizitatea eta sukaldaritza dira tailerrak. Oinarrizko heziketan ohiko ikasgaiez gain, esaterako matematika, maila pertsonala ere lantzen da. Azkenik, tutoriak, nolabait eztabaida saioak izaten dira, gai ezberdinak mahai gainean jarri (sexualitatea, soldadutza, gai orokorrak, aktualidadeko gaiak...) eta horien inguruan hitzegin eta eztabaidatuz, iritzi propioa izan dezatela lortu nahi da. Hiru arloak jorratu behar dituzte ikasleek.

Programa urtebetekoa da eta gero, bigarren urte bat dago, sakontze maila. Aurten, goizez tailerrak daude eta arratsaldez

Marian Jonin


18 urte, Sukaldaritza

- **Praktiketan egon izan zara.** - Bai, baina utzi egin nuen oso gogorra egiten zitzaidan eta.

- **Gustura sukaldeko saltsan?** - Eskolan bai, baina praktikak egitera joan eta zazpi orduz sukaldean sartuta egotea, asteburuak barne oso ezberdina da. Ez dauka zerikusirik.

- **Gustora al zaude Bide-Egin-en?** - Oso gustura, batez ere lagunartea gustatzen zait. Jende jatorra ezagutu dut. Orain jende gutxiago gaude asko praktikan daudelako eta haien falta igartzen dut.

- **Irteerak ere egiten dituzue.** - Bai, aerobik egitera joaten gara, mendira... Hemen nire etxean bezala sentitzen naiz.



Rafael Hernandez

17 urte, Igeltseritza

- **Zergatik aukeratu zenuen igeltseritza?**

- Aurretik ere peoi bezala lan egin izan dut eta gustatzen zitzaidanez...

- **Eskulanak gustatzen**

zaizkizu? - Bai, gauzak eraikitzea.

- **Eta gutxien?** - Eraiki eta gero, erabili dituzun tresnak jaso eta dena garbitzea.

- **Amaitu eta gero, zein da zure asmoa?** - Lana bilatzea, igeltsero bezala ahal bada.

- **Lehen Armerian izan zinen.** - Bai baina ezberdina da. Han dena teoria zen. Hemen praktikak izaten ditugu, amenoagoa da. Gusturago nabil.

- **Faltan botatzen duzun zerbait?** - Neskak, oso gutxi daude eta.

sakontze mailan bi arlo: alikatatua eta soldadoa eta sukaldaritza txikia edo pintxoak.

Ikasle bakoitzak aukeratzen du zein taillerretan nahi duen parte hartu. Halere, ezer erabaki baino lehen, lehenengo asteetan tailer guztietatik pasatzen dira garbiago izan dezaten zein den gustuko dena. Teoria eta praktika, biak lantzen dituzte. Eskolan bertan tailerretan praktikak izateaz gain, hainbat enpresarekin harremanetan daude eta horietan benetako praktikak egiten dituzte, lan mundua gertutik ezagutze-ko aukera dutelarik.

Irakasle baino, hezitzaile

Bide-Egin-era ikasle gehienak desmotibatuak joaten dira, "gu irakasle baino hezitzaileak gara. Maila pertsonala asko lantzen dugu eta horretarako badugu tresna oso garrantzitsua: harremana". Ikaslearen ondoan daude bere bidearen jarraipen zehatza egiten, "harreman



Elektrizitatea, egurra, igeltsaritza eta sukaldaritza tailerrak daude.

zuzena da, erabat horizontala, beti ere garbi edukita zein den bakoitzaren tokia eta batak bestea errespetu handiz tratatuz". Helburua, "desorientatutak etortzen diren neska-mutilei gauzak argitzea da. Zer egin nahi duten, zer izan nahi duten aurkitzen laguntzen diegu, guztia pertsona bezala formatzen ditugun bitartean". Gizartean ezartzen diren estereotipo horietatik gero eta urrunago daude Garantia Sozialeko Programak, "ez dira pertsona marginalak, era guztietako pertsonak dira. Gertatzen dena da,

jendeak uste duela gure ikasleak pelikula ameriarretan agertzen diren neska-mutil problematik horiek bezalakoak direla".

Emaitza positiboa

Garantia Sozialak hiruzpalau urte darama martxan, aurretik konpensatoria izenekoa zegoen, 14-16 urtekoei zuzendua. Programa hauetako emaitzak neurtzea ez da gauza erraza izaten, "halere, ikusi dugunaren arabera, emaitza positiboa dela esan dezakegu. Euren jarrera neurtzen dugu hasten direnean eta gero, harremanak jendearekin,

beraien iritzi propioak izateko gai diren ikusten dugu... Ikasturtea amaitu eta gero ere, jarraipena egiten dugu beraiekin eta ikusitakoaren arabera, emaitza ona dela esan daiteke, nahiz eta beti dauden arazo gehiago izaten dituzten mutilak".

Ikasketez gain, eskolaz kanpoko ekintzak ere antolatzen dituzte, "hilabete guztietako azkenengo ostiraletan, lehenengo orduetan tailerrak egin eta gero, Kiroldegira edo Mintxetara joan eta hainbat ekintza egiten ditugu". Mendi irteerarik ere egin izan dute, "urtean zehar bi, horietako bat hiru egunetako Anboto aldera".

Ikasturtea amaitzean zertifikatu ofizial bat banatzen dute, diploma antzeko bat. Batetik, Lehen mailako lanbide hezkuntzari buruzkoa eta, bestetik, sakontze mailakoa. Era berean enpresek praktikak egin dituzten ikasleei agiria bat ematen dietena.

Noiz hartuko dituzu oporrak?



NADIA NUÑEZ
14 urte, ikaslea

Datorren asteartean, ze errekupeazioak ditut. Abuztuan lehenengo Donostiara joango naiz lehengusinarekin bi aste pasatzera eta gero Andaluziara.



JULIAN ESPIGA
63 urte, jubilatua

Aurten urrian edo azaroan. Jubilatuta nago eta garai horretan Inersok antolatuta opor merkeak izaten ditugu. Lanean nengoanean, abuztuan hartzen nituen.



BLANKA BADIOLA
49 urte, etxeoandrea

Julixuan lelenguan, urtero bezela. Zarautzen eoten gera baina San Bartolomietako hona etortzen gera, oseake, hilabete t'erdí eitxen dou.



ENRIQUE FERNANDEZ
38 urte, pintorea

Abuztuan hartzen ditut normalean, lanaren arabera. Neri ez zait inporta oporrak noiz hartu baina nahiago dut abuztuan edo irailean, semearekin batera izateko.



PETRA CARRASCO
45 urte, etxeoandrea

Aurten ez dakit, ze gurasoekin arazoak dauzkat. Hala ere, normalean abuztuan joaten gara oporretan. Urteko sasoirik aproposena iruditzen zait.



RUBEN MARTINEZ
25 urte, ikaslea

Uztailaren 31n hartuko ditut, abuztuaren 23ra arte. Aukeran beste sasoi bat hartuko nuke oporretarako, neguan adibidez. Abuztuan jende gehiegi egoten da toki guztietan.

Iraileko EGA azterketarako klaseak
AEK Euskaltegia
Plaza Txikia, 3
Tel. 74 13 32

izena eman AEK!

okindegia eta gozotegia

FOTERO

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR



■ Kontenedoreak erretzeagatik zigorra

Deba Beheko Mankomunitateak jakinarazi duenez, Eibarko epaitegiak kontenedore bat erretzeagatik pertsona bat zigortu du. Lehen aldiz gertatzen da pertsona bat kontenedore bat erretzeagatik zigortzea. Erretako kontenedorea Mankomunitatearen jabetzakoa zen eta epaileak 2 eguneko atxiloketa zigorra ezarri dio bai eta kontenedorearen balioa Mankomunitateari ordaintzea ere. 1995ko istiluetan erretako kontenedoreak 27 izan ziren, 12 paperarenak eta 3 beira kontenedoreak.

Mankomunitatearen datuen arabera 27 kontenedore horien txikizioak bi milioi t´erdiko galera eragin du. Mankomunitateak “oso positiboki” baloratu du sententzia eta Administrazio ezberdinak eta hiritarrak “ganberrismo mota hau salatu eta zigorzen lagun dezaten” animatu nahi ditu.

■ Zapikiren bilera

hilero bezala, Zazpiki irratiak bilera egingo du larunbatean, hilak 22, goizeko 11,30etatik aurrera. Bilera Zazpikiren lokalean izango da.

Sanmigeldarren Egunean omendu zituzten Antonia Gurrutxaga, Jesusa Garaialde eta Antonia Ansola maistra izandakoak ditugu argazkian. Beste argazkian, berriz, banakako pilota txapelketan txapeldun eta txapeldunorde geratu zirenak ditugu; 22 eta 11 geratu ziren partiduaren ostean. Ezkerretik hasita Iñaki Oñederra nekazal zinegotzia, Xabier Loiola bigarren geratu zena, Arkaitz Balzola txapelduna eta Jabier Arrizabalaga auzoko alkatea. 130 bat auzotar izan ziren bazkaltzen eta eguna lagunartean eta giro ezin hobean pasatu zuten.

PACO

TABERNA eta ERRETEGIA

BEREZITASUNAK!

◆ TXITXARROAK

◆ MUXARRAK

◆ SAHIESKIAK

◆ TXULETAK

☎ (943) 74 28 44 ALTZOLA

Ondo pasa San Juanak!

■ Txomin Zabaleta diakono egingo dute

Datorren zapatuan, hilak 29, Txomin Zabaleta elgoibartar gaztea diakono ordenatuko dute Donostiako Artzai Onaren katedralean. Diakonoa apaiza izan aurretiko pausoa da, hau da, elizako hierarkian diakonoaren hurrengo apaiza litzateke. Txomin Zabaleta baino lehenago diakono ordenatu zen azken elgoibartarra Bernedo izan zen, duela 26 urte.

■ Egur-en erakusketa

Egur Arte Tailerraren margo erakusketa gaur, hilak 21, inauguratuko da. Arratsaldeko 7etatik aurrera Kultur Etxeko erakusgelan ikusgai egongo dira Egur Tailerreko ikasleek urtean zehar egindako lanak. Bisita orduak: arratsaldeko 7etatik 9etara astegunetan eta 12etatik 2etara jaiegunetan.

■ Zuzendaritza berria Txankakua Elkarteak

Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen joan den hilean egindako asanbladan. Lehendakari Juan Luis Astigarraga aukeratu zuten eta Kontxi Arano lehendakariorde. Diruzaina Ana Mari Otaegi izango da eta batzarkideak honako hauek: Jose Ramon Bastida, Mari Plaza, Garbiñe Aranzeta eta Julian Iriondo. Idazkari Nerea Erkiagak jarraituko du.

■ Jai programarako kartel-lehiaketa

Urtero bezala San Bartolome jaietako programaren azala lehiaketa bidez aukeratuko da. Udalak lehiaketan parte hartzeko oinarriak kaleratu berri ditu. Hauexek dira: teknika librean A2 neurriko lanak izango dira. Ezinbestekoa izango da "Elgoibar, San Bartolome jaiak 1996" testua agertzea. Lehenengo saria 50.000 pta.koa izango da eta 15.000 pta.ko sari berezia egongo da lehen elgoibartarrentzat. Lanak Kutur etxean



AZKUE

San Juan suaren inguruan dantza saioa egingo da igande gauean

San Juanen inguruan bizirik dirauten tradizio eta sinesmen ugarien artean, aspaldiko tradizio bat berreskuratuko da aurtten. Kilometroen ekitaldien barruan, San Juan bezperan, hilak 23, igandea, San Juan suen inguruan dantza saioa antolatu da. Solstizioaren garrantzia azpimarratu nahi du ekitaldi honek bai eta galdutako ohitura hau

berreskuratu ere. Arratsaldeko 8etan, Inazio Bereziartua Musikeskolako, Haritz Dantza Taldeko, Trititilari Eskolak eta Udal Txistulari Taldekoak herriko kaleetan zehar kalejiran ibiliko dira. San Juan bezpera denez, ohiko suen ostean izango da dantza saioa. Gaueko 11ak aldera hasiko da suaren inguruko dantza Plaza Handian.



Gestio Eskolak antolatuta, erakundeen gestioaren hobekuntzari buruzko hitzaldia izan zen joan den ostiralean Erreminta Makinaren Institutuan. Eskolako zuzendaria den Jose Mari Ulaziaz gain, Iñaki Arriola Eskola-Patronatuaren gerentea, Mikel Ugalde Kalitatearen hobekuntzako Euskal Fundazioko zuzendaria eta Eduardo Tolosa BBVko zuzendariak ere partu hartu zuten kalitatearen inguruko saioan. Ekitaldian zehar, europar eredian oinarritutako eta Gestio Eskolak egindako "GestiON" dokumentuaren aurkezpena egin zuten.

Ribate zena omendu zuten Finalista Egunean

Finalista Eguna ospatu zuen Morkaikok pasatu berri den domekan San Pedron. Goiztiarrenak Morkaikora igo eta Hiru-Iturrin hamarretakoa jan eta gero, eguerdi partera San Pedron bat egin zuten autoz igo zirenekin domina banaketa ekitaldiari hasiera emateko. Urtean zehar horrenbeste mendi egin dituzten guztiei domina eman zitzairen. Ekitaldian zehar mendizale elkarteko kide izandakoa eta Morkaiko Finalista Egunean hutsik egin gabe parte hartzen zuen Jose Luis Ribate zena omendu zuten. Argazkian haren senitartekoak ikus daitezke Pako Iriondo Federazioko



presidentearen eskutik oroigarria jasotzen. Bazkarian 60 bat lagun izan ziren eta arratsaldean jolasak haurrentzat eta bolo txapelketa

nagusientzat. Giro ezin hobean pasatu zuten eguna, Mauxitxa txarangarekin demaseko kalejiran ibili zirelarik San Pedroko zelaian.

Ikastolako gurasoek euren seme-alabek adina disfrutatu zuten joan den zapatuan "Gurasoen Eguna" jaian. Pilar ikastetxean bezala, goizean hasi eta iluntzerarte luzatu zen festa, eguraldi eder eta umore ezin hobeak lagunduta. Goizean Kilometroen zirkuituari buelta eman zioten. Goiz partean bai eta arratsaldean ere gurasoak eta haurrak jolasean, kantuan eta bertsoan aritu ziren eta eguerdian bazkaria egin zuten patioan. Taberna ere eduki zuten, hainbeste jokok eta beroak sortutako egarria eta gosea asetzeko.



Pilar ikastetxean, Ikastolan bezala, Gurasoen Eguna ospatu zuten zapatuan. Gurasoei zuzenduriko eguna izan bazen ere, guztientzat, baina bereziki seme-alabentzako jolasak eta bestelako dibertimendurik ez zen falta izan. Sukaldari lanetan zein trebeak diren erakusteko aukera izan zuten goiz partean eta eguerdiko bazkariaren ostean, sari banaketa, karaokea, tonbola eta jolasak egin zituzten. Jaia gauerarte luzatu zuten, nahi zuenak afari eta dantzaldiarekin ondo pasatzeko aukera izan zuelarik.

Enrike Larrañaga:

“Institutuan hazia sartu eta zuhaitza aurrera doa”

65 urte dituen gizon hau eibartarra da jaiotzez. Bere gurasoek ileapaindegia zuten, “inguruko onena”. Garai onak ezagutu zituzten gerra iritsi arte, gero aita zauritu eta Aretxabaletara joan eta bizitza berri bat hasi zuten. Enrikek aitari ileapaindegian

laguntzen zion, seminarioan ikasi eta apaiz ere egin zen; ezkondu eta apaiz izateari utzi ere bai; filosofia irakasle da eta orain 20 urte, Institutuaren sorreran bera zen zuzendaria. Jubilatatu egingo da irailean eta ekainaren 28an omenaldia jasoko du.

- Apaiz eta filosofo.


- Bai, apaiz egin eta Plazentzian 11 urte egon nitzan. Handik Debako ikastetxera jun nitzan zuzendari. Gero Filosofian lizentziatu nitzan, urtebete egon nitzan Erroman eta beste lau Madrilgo Complutensean. Oposaketak atera nitxun eta Eibarko institutura jun nitzan.

- Eta handik Elgoibarre-ra.

- Bai. Elgoibarren institutua martxan jarri nahi zala eta neri eskaini zien zuzendaritza. Nik baldintza bakarra jarri naban, nere esku lagatzia irakaslien aukeraketia. Eibarren zuzendari Tomas Uribeetxebarria zan eta garai hartan Ikastolen inguruan eta giro haundia zauan. Harek bultzatuta, batxilergua ere euskeratu nahi gendun eta bile-rak egiten hasi ginan. Lehenengo ikasturtia 1976-77a izan zan.

- Ez argirik, ez urik hasieran.

- Ez, institutua eskeletua bakarrik zan, ez zauan beste ezer. Jaime Arrese zaon orduan alkate eta ikasliak Udaletxian eman zeben izena matrikulatzeko. 76 ikasle danera. Gurasuen komisiua sortu gendun eta danon



“Bidairik apasionanteena, nor bere barrura egiten dena da”

lanari eta laguntzari esker atera gendun aurrera. Gainera, orduan ezagutu naban Maite.

- Gaur egun emazte duzuna.

- Bai, fletxazoa izan zen. Ordura arte nire maitasun guztia Jesusi zuzendua zegoen baina Maite ezagutu nuenean, zerbait aldatu zen nigan. Ni aberastu egin naiz eta bera aberastu egin da.

- Bizitza erabat aldatu zitzaizun, beraz.

- Erabat. Apaiz izateari utzi eta ezkondu egin nitzan, institutu berrixa aurrera etara bihar...

- 20 urtean, zer berri?

- Mordo bat. Hasi ginanian Francon garaixa zan, pentsatu, inaugurazio-ra Tejero etorri zan, ikastetxe hartan bandera espainola zergaitik ez zauan galdezka egon zan... Oin dala egun batzuk, berriz, Iñazio Oliberi izan zan, Hezkuntza kontseilaria bera. Bestalde, oso pozten nau orduan hazia sartu eta zuhaitza aurrera doala ikusteak. Gaur egun Elgoibarko Institutuan dago Euskal Herriko euskara departamenturik onena, libruak argitaratzen dituzte...

- Zuzendari pare bat urtez izan eta gero, alde egin zenuen.

- Bai, oposaketak egitera joan nintzen eta gero berriz Elgoibarrera, baina filosofia irakastera.

- Ba al du parekotasunik filosofia irakasle eta apaiz izateak?

- Bai, azken finean bietan ari zara mezu bat transmititzen. Guztiok gara filosofoak, galderak egiten ditugu etengabe, gauzak zergatik gertatzen diren... Gero norberak aukera bat egiten du, neri erantzunik onena Jesusek eman dit.

- Irakasle ona izan al zara?

- Saiatu naiz eta neretzat oso esanguratsua da ikasle ohiak etorri eta nirekin pozik ibili zirela entzutea. Lanarekin asko disfrutatu izan dut beti eta hori igerri egiten da.

- Definitu zure burua.

- Zoriontasuna bilatzen duen pertsona naiz, ingurukoak zoriontsu izan daitezen saiatzen dena. Azken urteotan bidairik apasionateena deskubritu dut, nere barrura egiten dudana bidaia. Nor bere burua ezagutzea, deskubritzea... oso aberasgarria da.

Zaharrek **BERRI**

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 23. GEHIGARRIA



AMELIA GONZALEZ

Gipuzkoako jubilatuei zuzendutako lehiaketa batean bigarren saria eskuratu du Amelia Gonzalez elgoibartarrak. Ameliak 3 grabatu bidali zituen eta horietako batek jaso du 50.000 pta.ko saria. 67 urte dituen emakume hau madrildarra da eta orain 8 urte inguru pertsona bat ikusi zuen grabatua egiten, "hari begira geratu eta ni ere horrelako zerbait egiteko gai nintzela konturatu nintzen". Elgoibarrera itzuli zenean, materiala erosi eta bere kontura hasi zen, afizio modura. Orditik 150 grabatu inguru egin izan ditu eta hiruzpalau

erakusketa. Guztien artean berezi-berezirik ez duela aitortu digu, hori bai, "etxean geratzen direnak ez dira politenak, horiek saldu edo oparitu egin ditut eta". Garai batean Donostiako etxe batentzat enkarguz egiten zituen grabatuak. Ameliak erabil-tzen duen metodoa ez du beste inork ezagutzen Elgoibarren, "eta niri ez zait interesatzen inork jakitea". Bere etxean izan ginen, han ikusi genituen hainbat koadro Ameliaren grabatuekin eta guri ere, horietako bat oparitu zigun. Zorionak eta mila esker, Amelia!

APOLINAR ALDALUR

“Txikiteuan baino nahixo pintzelekin jolastia”

Orain 65 urte jaio zen Lasturren Apolinar Aldalur, Arrasketa baserrian. Oraindik ere bertan bizi da baina denbora gehiena Elgoibarren pasatzen du. Lehenago lanean, Goitin hainbat urte egin zituen eta. Gaur egun, berriz, betidaniko afizioa duena lantzen du, pintura. Egur-eko partaide, orduak era orduak ematen ditu Ubitarteko lokalean koloreekin jolasean.

- Umetan ez zenuen pinturan aritzeko aukerarik izan.

- Ez. Baserrixan bizi ginan eta orduan ez zauan biderik kalera. Gure amak maistria etxera ekartzen zaban eta harekin ikasi genun guk. Ostantzian, beti baserrixan lanian eta 26 urtekin tailarrera. Denborarik ez zauan beste ezertan pentsatu ere eitzeko.

- Halere, badakit gauean etxera iritsi eta zure kontura pintatzen zenuela.

- Bai. Egun guztia ematen naban etxetik kanpo, lanian eta baserrira bueltatzian ere beti zaon zeozer eitzeko. Akordatzen naiz zela ohera sartu eta paper batian zeozer pintatzen hasten nitzan. Baina, hain egoten nintzan kantsauta, segitxuan lo hartzen nabala.



- Jubilatzea eta pinturan hastea bat izan zen.

- Bai. Denboria nahi beste dakat oin. Lelengo Eibarrera jun nitzan eta plumillia, ikatzakin eta oleoakin hasi nitzan ikasten. Gero jakin naban Elgoibarren ere Egur zauala eta hemen gainera lokaleko giltza eman eta nahi nabanian etortzeko aukeria nakanez... Hementxe jarraitzen dot orduetik.

- Oleoa da gehien gustatzen zaizuna, ez?

- Bai. Danetik probau dot baina oleuak ematen ditx errespeto gehixen.

- Argazkiak begiratzuz ere margotzen omen duzu.

- Bai. Ni ibiltzen naiz kamariakin eta txoko diferentia-kin... Gero horiek begiratu eta holaxe ibiltzen naiz pintatzen askotan.

- Paisaiak, figurak...

- Danetik. Pertsonak ere mar-



gotzen ditxut. Azkenian, bata edo bestia izan, danak diaz zailak. Norberan abilidadian arbera dao asko, eta pazientzia ere euki bihozu.

- Margotzeak erlaxatu egiten omen du.

- Hala esaten dabe baina ni estutu eitxen nau askotan. Amaitxu arte oso tenso egoten naiz ze oso exigentia naiz eta gustora egon arte ezin diot pintatziari laga. Zeozer amaitxu eta gustora banao, orduan relajatzen naiz.

- Zein kolore emango zenioke bizitzari?

- Nik berdia, berde argixa, bizi-poza. Asko gustatzen jatan koloria da.

- 14 urte bazenitu, zer ikasiko zenuke?

- Arte Ederrak. Lehen ez naban aukerarik izan eta inork ez zian bultzatu ere ein. Oin diferentia izango zan.

- Barruan izan duzu afizioa beti.

- Bai, baina lantzeko biderik sekula! Oin arte, behintzat. Neri ez jata txikiteua gustatzen, ezta pasiuia ere, nahixao pintzela hartu eta koloriekin jolastia.

Kuadrua amaitxu arte ez naiz relajatzen

Zein da gehien estimatzen duzun aurrerakuntza?

Ez ur berorik, ez argindarrik, ez garbigailurik ez eta telebistarik ere. Asko eta asko horietako aurrerakuntzarik gabe jaio eta horrela bizi izan ziren. Halere, azken urteotan hainbat eta hainbat gauza aldatu da eta horiei esker, bizitza erosoagoa bihurtu

da. Edo ez? Izango da bestelakorik pentsatzen duenik ere. Dena dela, guk kalera jo dugu herritarren artean gai honi buruzko iritzia zein den jakiteko asmoz. Eta guztien ahotan bi gauza errepikatu dira: telebista eta garbigailua.



Caridad Crespo
65 urte

Orain dauden aurrerakuntza guztiak onerako izan dira. Gaur egun ezingo nuke garbigailurik gabe bizi eta telebistarik gabe ere ez. Telebistak konpainia handia

ematen du. Lau seme-alaba ditut eta badakizu, lan handia ematen dute.



Jose San Martin
66 urte

Egokixena? Ura ta, butanua ta,... Badakizu, lehen argixa petroleuakin izaten zan eta oin argi-indarra. Ederra da ura ta argixa eukitzia. Telebisiua ere adelantu haundixa da, partiduak ikusteko, korridak, notiziak...

Juli Zubizarreta
86 urte




Etxekolanak eitxeko, plantxia, labadoria, butanua,... horrek danak dakaz. Etxeko gauza guztiak arintzeko izan diazenak, danak dia onak. Ezkondu nitzanian askoz astunaua zan dana; oin ere asko ein bihar, baina lehen baino arinao. Telebixua baitxa, adelantua. Gauzak jakin eta ikusteko edarra da.

Maria Navarro
63 urte



Komunikabide guztiak aurrerapen handia dira, BARREN bera. Etxean bertan dena da aurrerakuntza. Garbigailurik eta telebistarik gabe gaur egun gazteek ezingo lukete bizi nahiz eta guk ezagutu dugun zer den horiek gabe egotea.



Alfonso Asruaga
62 urte

Gauza asko dauca medikuntzan eta aurrerakuntza oso inportantiak. Komunikabide ere bai, telebista

bera... Guk ez genduan radixua ezagutu gaur egun hemendik eta Ameriketara bertan eitxia gauzarik normalena da... Etxian adiantuak izan dia baina andrak, lehengo moduan bizi dia, estresauta.



Bizkarreko minak

Ay! Edalontzia gainezka jartzen duen tanta, postura txar bat erabili edo gehiegizko ahalgina egitearen ondorioa izaten da (haur bat jasotzeko edo pisu bat hartzeko makur-tzerakoan adibidez). Batzuetan mina inolako arrazoirik gabe azaltzen da. Halere, beti dago zergati izkuturen bat, esaterako, tentsioen pilaketa. Tentsio horren ondorioz bizkar aldea kargatu eta mina sortzen da.

Denbora asko postura berean egoteak, esfortzu fisiko jarraitu handia egiteak, hotzak eta korronteek, obesitatea eta haurdunaldiak tentsio handiko egoerak sortzen dituzte. Horiek guztiak behin baino gehiagotan gertatuz gero, sobrekarga bat izaten da eta horrek eragin negatiboa dauka gugan bai lanean bai eta bizi-tzan ere (harlauza bat baili-tzan darماغu gainean. Kasu horretan gerrikoa jarri eta Perurenari deitzea da onena).

Honetan guztian badira beste zenbait puntu kontuan izan behar direnak. Aspektu



PELLO EZKURRA
TERAPEUTA

emozional eta sexuarek izugarriko eragina izan dezakete, ondo bideratu edo azaldu gabeko amorru eta agresibitatea norberaren kontra jartzen dira eta sexualitateari dagokionean ere, arazoak eta insatisfazioak sortzen ditu.

Gorputzari entzun behar zaio, hor aurkituko dugu prebentziorik onena.

Eta mina daukagunean?

Medikuntza ezberdinetan badira minaren eta inflamazioen aurkako tratamenduak. Masaiek eta beroa jartzeak ere onura handia dakarte. Baina, garrantzitsuena deskantsatzea da, autosufizien-tzia, betebeharrak eta kulpak alde batera uztea eta, batez ere, norberaren burua mima-tzea.



ANA COCERA


Piña tarta

OSAGAIAK:

- Sei arraultza
- 8 goilarakada azukre
- 8 goilarakada irin
- Royal sobre bat
- Nata

PRESTAKETA:

Arraultzen goringoa, azukrea, irina eta royal sobrea nahastu behar dira lehenik. Bitartean, zuringoak harrotzen dira elur puntua lortu arte eta gero dena nahasten da aurreko masarekin. Laba beroan sartu eta 25/45 minutu inguru pasa eta gero prest dago bizkotxo. Bizkotxo hiru kapatan banatu eta nata piña zatiekin nahastuz, kapen artean jarri behar da. Beti ere, nata piskat utzi behar da bizkotxo kanpotik bustitzeko. Gero, tartaren gainetik txokolate birrindua botatzen da eta prest dago jateko.



Delfina Arriola

Gurrutxaga Harategikoa



- **Zerk jartzen dizu “oilo azala”?**
- ▶ Gure artian dauan ezin ikusixak.
- **Eta zerk azkartzen dizkizu bihotzeko taupadak?**
- ▶ Jendea zoriontsu ikustiak asko pozten nau.
- **Mingainluzea zara?**
- ▶ Normala, ez dot ez asko ez gutxi berba eitxen.
- **Txuleta eder bat ala angulak?** ▶ Txuletia.
- **Bizitza kozinatuta salduko balute?**
- ▶ Pakiaz eta lanaz eindako bizitza erosiko nuke.
- **Sekula irabazi izan al duzu “tajada” on bat jokoan?**
- ▶ Ez, noizian behin bakarrik jokutzen dot gainera, Gabonetan eta.
- **Zein tipotako “pozima magikoa” asmatu nahi zenuke?**
- ▶ Bertatik edan eta nahi beste lan eukitzeko modukua.
- **Zeren aurrean jartzen dituzu muturrak?** ▶ Gezurren aurrian.
- **Eguzkia hartzea gustatzen?** ▶ Bai, asko.
- **Beharpenetan zerbait erosteko asmorik?**
- ▶ Ez, komeni danian erosi eta bale.
- **Zenbatean behin joaten zara ileapaindegira?** ▶ Astian behin.
- **Sekula engantxatu al zara “kulebroi” batera?** ▶ Ez, bueno oin ohian egon biharra euki dot eta “Perla negra” ikusten egon naiz.
- **Egun zoriontsu bat?**
- ▶ Bi, ezkondu nintzarian eta alabak jaixo zianian.
- **Josten badakizu?** ▶ Piskat bai.
- **Umetan zer izan nahi zenuen?**
- ▶ Ez naban aukeraterik euki, 14 urterekin hasi nitzan karnizerixan eta.
- **Denbora librea zertan ematen duzu?**
- ▶ Tebista ikusten edo irakurtzen.
- **Haurtzaroa gogorazten dizun zerbait?**
- ▶ Oingo umiak diabolukin jolasian ikustiak.
- **Zerbaiten faltarik ba al duzu?** ▶ Denbora libre gehixo akaso.

SAN JUANAK

DOINUA:

Aspaldidanik hasi nintzan-da

Indarrez dira ekain inarrak
jauziz amiltzen lurrera.

Heldu da Amandre izar gorria
ortziaren gailurrera.

San Juan gauak mugatu ohi du
uda agorraren sarrera.

Sugar kinkarrez ilargipean
egiten zaio harrera.

Lizar zuhaitzak jada ez dauka
hostoa oso malgua.

Iratzearen horria ere
laztua bezain heldua.

Udaberriko hezetasuna
dagoeneko galdua.

Gau laburrenak sutzar gorritz du
agurtzen uda-burua.



JON BARANDIARAN

B
E
R
R
E
T
A
S
O
T
O
T
A
N



ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Udaletxean euskararen erabilera indartzeko plana martxan jarriko dute irailetik aurrera

Euskara Batzordeak Elgoibarko Udaletxean euskararen erabilera areagotzeko plan berri bati ekingo dio hemendik gutxira. Gaur egun Udaletxean lan administratiboa egiten duten langile gehienak euskaldun alfabetatuak dira edo, gutxienez, alfabetatze eskolak hartu dituzte. Halere, erabilerari dagokionean egoera nahiko kaskarra da, askotan euskaldunen artean ere erdara delarik nagusi. Euskara Batzordeak bidalitako idatziaren arabera, lana erdaraz egitetik euskaraz egitera pasatzea falta da. Orain artean hiz-

kuntza eskakizunen plangintza egin da, erabilera arautzeko ordenantzak onartu dira eta abar. Orain, ezagutza aldetik dagoen egoera aprobetxatuz erabilerari ekin nahi dio Euskara Zerbitzuak. Horretarako, zerbitzuz zerbitzu langileak aztertu eta helburuak jarriko dira epe motzera. Langileen prestakuntza-ikastaroak antolatu eta lana euskaraz egiteko baliabideak eskainiko dira. Momentuz Idazkaritza, Kultura eta Kirol sailei emango zaie lehentasuna aurrerago Ongizate eta Udaltzaingoarekin jarraituz.



Gotzon Arrieta

Euskara Batzordeko lehendakaria

- **1995ean euskararen ordenantzak onartu ziren.**
 - Bai, euskararen erabilpena sustatu eta normaltzeko bai Udaletxean bai eta herritarren artean ere.
- **Lehenengo fasea ezagutza izan zen.**
 - Bai eta gaur egungo plantillaren %73ak derri-gorrezko perfila du eta horietatik %62ak gainditu du. Gainontzekoak ikasten ari dira.
- **Halere, erabilera aldetik egoera nahiko kaskarra da.**
 - Bai, momentu honetan Udaletxean ia dena erdaraz sortzen da eta gero itzuli egiten da. Horregatik, orain hasi nahi dugu erabilera plana.
- **Zertan oinarritzen da?**
 - Trebatze plan bat da jendeak euskaraz funtzionatzeko ohitura har dezan, bai idatziei dagokionean bai eta hitzegiten ere. Hasi idazkaritza, kultura eta kirolarekin hasiko gara. Sail horietan denak dira alfabetatuak eta horiek dira jendearekin harreman gehien dutenak. Irailean hasteko asmoa dugu.
- **Nola eramango duzue aurrera plana?**
 - Udal Euskaltegiarekin hitzegin dugu eta asmoa, irakasle bat erdi liberatzea da. Berak egingo luke langileen trebatze lana bai eta jarraipena ere, hasieran ordu betez, gero bi orduz... Azkenean, epe luzera, langileek dena euskaraz sortzeko gai izan arte.

Kurtsoa	SAILAK
96/76	► Idazkaritza/Kultura/Kirola Langileen trebakuntza 1. eta 2. maila
97/98	► Idazkaritza/Kultura/kirola Langileen trebakuntza 3. maila ► Ongizatea Langileen trebakuntza 1. eta 2. maila.
98/99	► Idazkaritza/Kultura/Kirola Langileen trebakuntza 4. maila (bukaera) ► Ongizatea Langileen trebakuntza 3. maila ► Udaltzaingoa Langileen trebakuntza 1. eta 2. maila
99/00	► Ongizatea Langileen trebakuntza 4. maila (bukaera) ► Udaltzaingoa Langileen trebakuntza 3. maila ► Diru saila Langileen trebakuntza 1. eta 2. maila
2000/01	► Udaltzaingoa Langileen trebakuntza 4. maila (bukaera) ► Diru saila Langileen trebakuntza 3. maila ► Hirigintza Langileen trebakuntza 1. eta 2. maila

Olaetxea dorretxea

■ Altzolako auzunean, bilgunera iritsi aurretik eta Mixpilibar bihurgunea eta zubiaren artean aurkitzen dira dorretxe honen hondakinak. Eraikinaren hiru fatxadetako harmora sendo batzuk bakarrik kontserbatzen dira, teilturik ez duelarik.

■ Arkitektura hondakinek erakusten duten bezala, dorretxea handia zen, sotoa, hiru solairu eta ganbara zituelarik. Oinplano karratua, harmoretan harlangaitzez eta eskantzuz eta baoguneetan kararrizko harlanduz eraikia zen. Eskantzuen gainean dorretxeari nortasun berezia ematen zioten garitoiak

■ Lantzeak egiten zirenean, burdinaz eta errota erabiliz, almagari dize sotoan. Bere gainean irteerak zirela eta, hiru solairu gorrotz bakoitzean daiteke. Horren gainean, eskantzuz eraikitzen zirean, eskantzuz eraikitzen zirean laurak. Horren gainean, beheko solairu bakoitzean zirela dirudi. Horren gainean, erdi alderantz irekitzen den erdi puntuko arkuz eraikitako atea erdi eroria dago. Ate arkudun honen behe aldeko ezker aldean leiho dinteldu txiki bat dago eta gaineko eskuin aldean piskat handiagoa den beste bat.

ibai alderantz irekitzen den erdi puntuko arkuz eraikitako atea erdi eroria dago. Ate arkudun honen behe aldeko ezker aldean leiho dinteldu txiki bat dago eta gaineko eskuin aldean piskat handiagoa den beste bat.

PELLO ARRIETA

Jose Zubiaurre San Martin "Metala" (1915-1986)



- 1915ko irailaren 18an jaio zen San Migeleko Metalkua baserrian.
- 8 anai-arrebetatik zaharrena zen. Gaztetatik nekazaritzari ekin zion josta su, jaiotetxean bertan.
- 21 urterekin frontera abiatu zen, gerra garaian. Urtebete berandago, "Fuerte San Cristobal"en lehenik, eta "Puerto Santa Maria"ko espetxetara geroago, gartzelaratu izan zen.
- Abertzale amorratua zen. 3 urte luze eman zituen erregimenaren espetxetara.
- Gogokoak zituen herri kirolak: idi probak, aizkolariak,... Esku-pilota partiduak atsegin zituen batez ere.
- Pertsona alai, irekia eta herrian entzute handikoa, hamaika arrazoi eder emandakoa.
- Bere baratze ertzetik pasatzen ziren ibiltariei ez zitzaien elkarrizketa eta ardo tragorik falta izaten inoiz.
- Bihotzekoak jota hil zen 1986ko otsailaren 10ean.

JUANITO GOROSTIZA



Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

GOXO

Ortutegi, Arriola, Alkorta, Ederren
 etxean egindako barhiloak, **MERIENDAK**
 erraskilak, ... **GUREKIN!**

MOTZAK

Ligako txapela eta igoera jokoan Areto Futboleko

Areto Futboleko bi taldeek, lehen mailakoak eta bigarren mailakoak, partidu historikoak jokatu dituzte gaur, hilak 21. Bi taldeek ez dute zazpi urtetan partidu horren garrantzitsurik jokatu. Lehen mailako taldeak iazko liga txapeldunaren aurka jokatu du, Egoki taldea, alegia. Partidu erabakiorra da, irabaziz gero liga txapeldunak izango baitira. Hori bai, garaipena derrigorrezkoa da txapeldunak izateko. Bigarren mailako taldearentzat ere, berebiziko garrantzia du ostiraleko norgehiagokak. Antzetaren aurka berdinketa lortuz gero, lehen mailarako igoera poltsikoan izango dute. Areto Futboleko klubak deialdi berezia egin nahi du zaletu guztiak talde elgoibartarrak animatzera joan daitezten. Elgoibar eta Antxetaren arteko partidua, bigarren mailakoa, 22,00etan hasiko da Kiroldegian, eta lehen mailako Elgoibar eta Egokiren artekoa, berriz, 23,00etan.

Karate txapelketa

Urrezko domina lortu zuten Nicolas Jimenez-ek jubenetan eta brontzezkoa Josu Duranek infantiletan eta Carlos Feijook alebinetan joan den asteburuan Oñatin jokatu zen Karate txapelketa. Kluben arteko jardunaldia izan zen, Oñati, Arrasate, Bergara, Azkoitia eta Elgoibarko klubentzako. Larunbatean, hilak 22, udako Klubentzako Txapelketa jokatu da Kiroldegian 4etan hasita. Infantilen kategoriako norgehiagoka izango da, 6 urtetik 14ra bitarteko 70 bat lagunek parte hartuko duelarik.



Javier Quintano:

"Teknikaz baliatzen gara irabazteko"


■ **Unibertsitatean hasi zinen frontenisean?** - Institutuan entrenatzen hasita geunden, ni eta nere laguna, Gorka Merino. Unibertsitatean txapelketak zeudela jakin genuen eta oportetara joaten naizen herrian ere, Segovian, fronteniserako zaletasun handia dago. Han hasi nintzen.

■ **Federaturik zaude?** - Ez, datoren urtean seguruenek. Orain afizioagatik jokatzeko dugu eta federatuta egoteak gauzak serioago hartzea dakar. Gainera, arazoak daude Pilotako Federazioarekin, frontenisa ez dela pilotaren barruan sartzen esaten duelako. Ez tenisa ez frontoia. Baina Olinpiadetan Pilotako modalitatean sartzen dute.

■ **Zenbat txapelketatan hartu duzu parte?** - Iaz batean eta aurtent bitan. Iazkoan eta aurtengo batean bigarren geratu gara eta beste txapelketa, berriz, irabazi egin dugu.

■ **Maila handia dago?** - Bai. Guk batez ere jende nagusiagoaren aurka jokatzeko dugu. Fisikako bosgarren mailakoak dira areririk gogorrenak. Iaz ezin izan genien irabazi, hala ere, 22 eta 20 galdu genuen. Baina aurtent ez diegu barkatu.

■ **Eta Segovian?** - Izugarria. Txapelketa batean 100 bikotek ematen du izena. Pentsatu, Espainiako



txapeldunarekin entrenatzen dut eta haren semearekin jokatu izan dut bikotetan eta hala ere, ez gara sekula final batera iritsi.

■ **Nola jokatzeko da frontenisean?** - Raketa bat erabiltzen da, tenisekoa baino karratuagoa dena eta gomazko pilota bat, oso arina. Korrika asko egiten da, jendeak gogor jotzen diolako pilotari. Joko teknikoagoa egiten dugu guk: dejadak, mateak... Gu baino nagusiagoak direnak indar gehiago dute eta indarrez irabaztea ezinezkoa zela ikusi genuen. Joko teknikoagoa eginen ondo joan zaizkigu gauzak.

■ **Elgoibarren ba al dago lekuri frontenisean jokatzeko?** - Nahiko ondo horniturik dago. Ni aurrelaria naizenez Pilarreko frontoia oso ondo datorkit. Entrenamendu serioetarako San Migelera joaten gara.

■ **Frontenisa izan ezean, zein kirol egingo zenuke?**

- Judoa egiten dut, bai eta saskibaloia ere. Judoan gerriko beltza atera nuen duela gutxi eta zenbait txapelketatan ere hartzen dut parte.

- **Adina:** 19
- **Miresten duzun kirolari bat?** Indurain
- **Zenbat raketa apurtu dituzu?** Hiru ditut, eta hirurak apurtuta
- **Gogokoen duzun raketa etxea?** Prince



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

Bidriera artistikoak
Obra komertzialak

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89





OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

14 kirol ezberdin egiteko aukera eskaintzen du Udal Kirol Patronatuak uda honetarako

Udal Kirol Patronatuak udako kirol kanpainaren 6. edizioan 14 kirol iharduera ezberdin eskaintzen ditu nagusientzat. Haurrentzat, berriz, zazpi. Uztail osoan zehar luzatuko dira ikastaroak. Izena emateko epea irekita dago eta azken eguna ekainaren 27a izango da.



Eskalada, tenisa eta puenting-a dira kirolrik estimatuenak haur eta nagusien artean.

Urtero-urtero tenisean eta eskaladan aritzen da jende gehiena. Azken urteotan estimazio gehien duten kirolak dira nonbait. Berrikuntza modura, aurten aerobic ikastaroa egongo da haurrentzat. Honez gain, ohikoak ere badaude, alboko taulan zehazten direnak, alegia. Helduei zuzenduriko ihardueretan, aire librean egiten diren kirol-irteeren eskaintza zabala dago. Batetik, egun bateko irteera Iratira kainoi jaitsiera egiteko, larunbat edo igandean aukeran. Bigarrenik, hidrospeed, kayak, piraguismoa eta kainoi jaitsiera Gallego eta Ebro ibaietan. Iharduera hauetan, kirol bakarra edo bi kirol egitea dago aukeran. Eta hirugarrenik, puentig eta espe-

leologia Oñatiko Araoz-eko parajeetan. Azken hau larunbat edo igandeko irteera izango da. Argibiderik jaso nahi izanez gero, edo eta izena emateko Patronatuaren 74 44 15 zenbakira deitu.

UZTAILEAN ZEHAR

Haurrentzako iharduerak

Tenisa (2.500 pta.)
Patinaia (2.000 pta.)
Eskalada (2.000 pta.)
Buzeoa (2.000 pta.)
Mountain Bike (500 pta.)
Aerobic-a (2.000 pta.)
Igeriketa	.(Argibideak Kiroldegan)

UZTAILEAN ZEHAR

Nagusientzako iharduerak

Tenisa (4.000 pta.)
Buzeoa (3.000 pta.)
Patinaia (3.000 pta.)
Eskalada (2.500/ 3.000 pta.)
Aerobic-a (1.700/2.500 pta.)
Muskulazioa (1.900/2.500 pta.)
Kainoi jaitsiera (5.000 pta.)
Hidrospeed/kayak/ piraguismoa... (9.000 pta.)
Puenting/espeleologia	.(3.500 pta.)
Igeriketa	.(Argibideak Kiroldegan)

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak Enbutidoak

Baserriko ogia Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92

Kidea

ASESORIA ETA CONSULTING

- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -

INBERTSIO PROIEKTUAK

Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

Mintxetako II. Futbol Txapelketa

Mintxetako II. Futbol Txapelketa hasiko da larunbatean, hilak 22, Udal Kirol Patronatuak antolatuta. 39 taldek eman dute izena uztailearen amaierararte luzatuko den txapelketan; iaz 18 baino ez ziren izan. Asteburuetan jokatuko dira partidua, larunbat eta igande goizetan.

Eskumaldean asteburuko partiduen ordutegia ikus daiteke Aste



honetan atsedena hartuko dute Ezbaikorrak, Kriston Arrautzak eta Manitu taldeek.

AGENDA

LARUNBATA, 22

- 09,00 Grassopper - Berrogei Duro
O. frantziskana - Rapid de Elgoibar
- 10,00 S. Pitxote - Lucky Luke
Katxi Potas - Thunderdome
- 11,00 La Colina - Numancia
Karkis - Lagun Onak
- 12,00 Vaso Play - Gazteak
Txirinbitxu - Udaberri
- 13,00 Manchester Lojan - 12 monos
Lagun Toki - Sokoa

IGANDEA, 23

- 10,00 Frente Alcohólico - Euromixto
Xare - Puta Mierda
- 11,00 Bar La Amistad - Koipez Ase
Peña Alaitz - Rebel Urbi
- 12,00 Vaya Robo - Pedrusko
Txirristaka - Ikas Gutxi
- 13,00 Vultur Griphus - C.D. Vallecás
Emoiok Gatza - Anorthosis

Gipuzkoako lehen urteko kadeteen txapelketa

jokatu zen zapatuan Elgoibarren. Elgoibarko Lagun Taldeak antolatutako lasterketa izan zen, 53 kilometrokoa guztira. Bero handia egin zuen eta horrek eta ibilbidearen gogortasunak izan zuen eraginik txirindulariengan, leher eginda iritsi baitziren Mintxetako helmugara. Tropelean sartu baziren ere, sprint-ean Bergarako Sumofic taldeko Peru Sagarna nagusitu zen. Bigarren Aritz Irulegi (AEG) izan zen; hirugarrena Jon Mendizabal (Sumofic) eta lehen elgoibartarra Aitor Arakistain.

Bestetik, Tolosan jokatu zen bigarren urteko kadeteen lasterketan Arkaitz Martínez elgoibartarra hirugarren postuan sailkatu zen.



SAN PEDRO JATETXEA

Jaiak ondo pasa!

**AURREZ ENKARGATUZ
GERO HOBE!**



San Pedro Auzoa. Tel.: 74 00 10. ELGOIBAR

Jaietan daude altzolatarrak

Denetik antolatu du Altzolako jai batzordeak. Gaur, ostirala, txupinazoaren eta sardina-janaren ostean, Plaentxi bikotearekin eta Combi taldearekin dantzaldia izango da goizaldera arte. Zapatu eguerdian nagusientzako jokoak izango dira eta Gin-Kana eta zezentxoak haurrentzat arratsaldean. Gauean Dakin txiste-kontalaria arituko da. Honen ostean Gaubela taldearen jarduna eta atsedendian "erratzaren dantza". Domeka arratsalderako herri kirol saioa antolatu dute. Aizkorarekin J.I. Flores de Ziordiak eta E. Ezpeleta "Biuurri" eibartarrak jardungo dute. Txingera erakustaldia ere izango da Debako Juanjo Agirregabiria Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko 3. aren eskutik. Eta honez gain, motozerra eta trontzalarien arteko norgehiagoka: Mintxeta eta Agerre trontzarekin Sansonen aurka, azken hau motozerrarekin. Arratsaldeko 8etan San Juan arbola jarriko dute; San Juan suak gauean eta Combi taldearekin dantzaldia. Astelehen goizean, San Juan eguna, adarrak jarriko dira etxeetan. Hamaiketan Haritz eta eliz abesbatzaren partaidetzarekin meza nagusia izango da. Pilota partiduak arratsaldean eta dantzaldia gauean. Jaiak asteartean amaituko dira, hilak 25. Egun honetan bazkari herrikoia, zezentxo eta poniak eta txokolate jana izango dute.



Asteburu honetan Altzolan dira jaiak eta hurrengo asteburuan San Pedron.

TRADIZIOZKO JAIK

Udan sartu berri gara. Urtaro berriarekin jaiak nonahi daude eta sasoi honetan nola ez, San Juanak nagusi. Altzolan ezezik, inguruko hainbat herritan ere San Juan jaiak hasiko dira asteburuan. Askok kanpora joko dute parrandan, Eibarrera seguruena eta gutxienak Altzolara. Zeharo galduta dago Elgoibartik Altzolako jaietara oinez joateko ohitura.

Kanpotarren bisita handirik

izaten ez badute ere, demaseko jaiak antolatzen dituzte urtero altzolatarrak. Tradizio handiko jaiak dira eta ohitura zahar askok bizirik diraute oraindik. Honen adierazgarri dira San Juan arbola jartzea eta San Juan suak, goizean goiz mendira adar bila joan eta etxeetako atarrietan jartzea, etab. Auzoko jaiak herritarrengan "tira" handirik ez badute ere, ziur altzolatarrak ondo baino hobeto pasatuko dutela.





DEBA IBAIARI BURUZKO INKESTA

Urubi Natur Taldeak inkesta bat prestatu du Deba ibaiaren inguruan jendeak duen iritzia ezagutzeko asmoz. Deba ibaiaren aldeko kanpaina bati ekin behar diote eta horregatik eskertuko lukete jendeak ondoko galderak erantzun eta honako helbidera bidaliko balitu: Urubi Natur Taldea, Santa Ana 26-5-A. 744499 telefonoa.

INKESTA

- Deba ibaia garbi dagoela uste al duzu?
- Zergatik uste duzu dagoela zikin?
- Zein konponbide emango zenioke?
- Deba ibaia garbitu daitekeela uste duzu?
- Hartuko al zenuke parte arazoa konpontzeko lanetan?

Urruzunari:

VI

"Poesiak bidaltzea neskak

15 urteko elgoibartar honek Urruzuno lehiaketan aipamena jaso du poesia arloan "Bakardadearen itzaletan" lanari esker. Poesia eta prosa, A eta B mailak eta bakoitzeko bost irabazle, 20 guztira. Irail bukaeran 10 eguneko bidaia egingo dute saritu guztiek.

- Zergatik poesia?

- Hasieran nakan pent-sauta prosako lana bialtzia baina ez naban euki astirik. Lehendik banakan poesia idatzi- xa, beste piskat ein naban eta, bia- du.

- Zeri buruzko poesia da?

- Hiru dia, bata zahartzaroari buruz, bestea maitasun ezari eta azkena pesimismoari buruz.

- Aspalditik idazten al duzu?

- Bai, beti gustau izan jata, bai prosa bai poesia. Dana dala, irudi- tzen jata gehixo esan laikela prosakin poesiakin baino.

- Poesia ez al da oso intimoa?

- Bai baina beti ere gaiaren ara- bera. Maitasunari buruz poesian esan zitekeen guztia esanda dago. Gauza berriak egin bihar dia.

- Esaterako?


- Eguneroko gaixak, lagunak, eguraldixak... Edozer. Prosa edo poe- sia izan gai diferentiak aukera-tzen ditzut.

- Noiz idazten duzu?

- Edozein momentutan, gogua eukitzen dotenian. Egixa da, halere, gauza asko hasten ditzutela baina gero amaitxu gabe lagatzen ditzutela.

- Musarik ba al duzu?

- Inspirazioan ez dot sinisten, horiek erromantizismoko gauzak dia. Musa bat edo beste badut baina... hobe ezer ez esatea.



- Neska

asko konkistatu al ditzuzu zure poemez?

- Ez, poesiak bialtzia neskak konkistatzeko ez da modernua. Nik nahixao dot aurrez aurre esatia.

- Badakit eskutitz asko idazten ditzuzula.

- Bai, klub batian nao sartuta eta mundu osotik jasotzen ditzut, Ingla- terratik, Frantziatik, Egiptotik, EEB- Betatik.... Asko gustatzen jata bai bialtzia bai eta jasotzia ere.

- Gustuko hitz bat?

- Asko erabiltzen ditut bakarda- dea, itzala eta ihintza.

- Irakurri duzun azken liburua?

- Bernardo Atxagaren "Bi anai".

- Literaturatik bizitzerik nahi?

- Ez da nere helburua. Nik Inji- nerutza Tekniko Energetikoa ikasi nahi dot eta denbora librean, afizio modura, idazten jarraituko dot. Oin, gustauko litzaidake inoiz libururen bat argitaratzia.

Salerosketak

- ❖ BIGARREN ESKUKO BARADUN TRONBOIA erosiko nuke.
☎ 74 21 86 Mikel
- ❖ JOSTEKO MAKINA estrenatu gabea salgai.
☎ 74 44 43 Mari
- ❖ KRISTALEZKO KONTSOLA bat saltzen dut.
☎ 74 32 51
- ❖ Motorrean ibiltzeko NARRUZKO TXAMARRA haundi bat saltzen dut.
☎ 74 16 31 Andoni
- ❖ PERIKITO GAZTEAK dauzkat saltzeko.
☎ 74 29 11

Etxebizitzak

- ❖ ETXE BAT SALGAI. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komuna. Prezio interesgarria
☎ 74 25 01
- ❖ PISUA BAT alokatzen dut ALCOCEBER- LAS FIARTES hondartza ondoan. Telebista eta labadorarekin. Uztailean eta irailean.
☎ 74 22 08
- ❖ Apartamentua alokatzen dut BENIDORM-en. Hondartzako lehen ilaran. Torre-Levante eraikuntza, piztina, parking, labadora eta telebistarekin.
☎ 76 46 61 / 74 16 57
- ❖ ETXE BAT SALGAI SANTA ANA kalean. Hiru gela, egongela, bi komun eta sukaldea ditu. Prezio onean.
☎ 86 12 47 / 74 35 86
- ❖ PISUA SALGAI SAN PEDRON. Hiru logela, sukalde-jangela eta bainua.
☎ 74 25 94
- ❖ PISUA BAT SALGAI. Berritua. UBITARTE 3, 3D.
☎ 74 34 86 (7etatik aurrera)
- ❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDAn. ☎ 74 15 22
- ❖ Etxebizitza SALGAI BERNARDO EZENARRO kalean.
☎ 36 17 18 Amaia (gauzez)

Lana

- ❖ GONAK JOSTEN ditut neurritan eta edozein motatako konponketak egiten. Zaharra ekarri eta berdina egingo dizut. ☎ 74 21 40 Konsuelo
- ❖ PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke gauzez. Sanitario auxiliari titulua daukat eta bi urteko esperientzia.
☎ 74 25 17 Amaia
- ❖ UMEAK ZAINDUKO nituzke ekain eta uztailean zehar. ☎ 74 34 99

Bestelakoak

- ❖ NESKA BAT behar dugu Bilbon pisua osatzeko.
☎ 94-476 09 97
- ❖ DONOSTIAN BIZI eta ELGOIBARRERA KOTXEZ bide hau egiten duen pertsona bat behar dut. Gastuak erdibana ditzakegu. Richard.
☎ 74 02 36 astegunak
☎ 42 84 06 astebukaerak
- ❖ VHS bideoen kopiak egiten ditut bai eta musika jarri ere.
☎ 74 32 94 (6etatik aurrera). Andres

Partikularrak

- ❖ KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut udan.
☎ 74 01 48 Alazne
- ❖ Titulidun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu udako lanetan laguntzeko eta iraileko examinak prestatzeko. Baita, armonia, transporte eta repentizazioko klaseak.
☎ 74 04 11 Silbia
- ❖ Enpresarialesen lizentziatuak KONTABILITATE eta BALANTZE ANALISIAri buruzko partikularrak emango ditu udan Eibarren.
☎ 12 16 38 Ainhoa
- ❖ MARRAZKETA teknikoko partikularrak ematen ditut.
☎ 12 16 38 Asier

Agurrak

- ❖ Zorionak IMANOL GALLEGORi bihar, hilak 22, 13 urte beteko dituelako. Guraso eta arrebaren partez.
- ❖ TERE IRANZO NAVARROri zorionak, bihar hilak 22, 38 urte beteko dituelako. Guraso eta beste familikoekin partez.
- ❖ Zorionak KRISTINA GARCIAri uztailean urteak beteko dituelako bere ikasle Eva eta Iñakirekin partez.
- ❖ Zorionak AINHOA GARITAGOITIAri 11 urte egingo dituelako uztailean 4an. Itsaso, Josu, guraso Jesus eta Kontxi, amama Maria eta lehengusu eta osaba-izeben partez.
- ❖ Zorionak ESTHER GURRUTXAGARI ekainaren 20an 13 urte bete zituelako. Eider, Leire eta Ainhoaren partez.
- ❖ Zorionak JON ANDER AVILARI ekainaren 15ean 5 urte bete zituelako. Anai-arreben partez.
- ❖ MARIJE, Zorionak 13 x 2 +1 urte bete dituzulako eta ea egun atxutxi bat pasatzen duzun. Pintxoak goxoak zeuden!. Elgoibarko Izarra eta BARRENEkoak.
- ❖ AMAGOIA, egun berean 27 urte betetzea eta ezkontzea ez da makala. Hain egun berezian zorionik handiena opa dizuegu BARRENEkoek. Bai zuri eta bai Migeli ere.

Garajeak

- ❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean.
☎ 74 01 77
- ❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen.
☎ 76 17 95
- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.
☎ 74 31 07

PREMAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

- Anbulategia:
- Larrialdiak.....461111
 - Txanda hartzeko....743354
 - Planning-a742950
 - Alkoholiko Anonimoak..740385
 - D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 - Gurutze Gorria.....743864
 - Mendaroko Ospitalea756264
 - Odol Emaileak.....743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442
- PESA (Eibar).....102131
- Taxi geltokia.....740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
- Udal Kirol Patronatua744415
- Kultura Zerbitzua742158
- Mendaroko Udala756100
- Ongizate zerbitzua...741008
- Udaletxea741050
- Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

- Caritas740142
- Elgoibarko Izarra.....741626
- Kontsumo Bulegoa ...743088
- Liburutegia743525
- Musika Eskola742145
- Mintxeta744315
- Parrokia740842
- Polikiroldedia741361
- Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
- Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
- Herri Eskola.....74 08 79
- I.M.H.74 41 32
- Institutua74 02 67
- Ikastola74 44 41
- L.H.I.....74 44 80
- Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
- El Diario Vasco74 40 73
- El Correo Español...74 10 82
- Egin.....10 84 21
- Zazpiki irratia74 34 74

OSTIRALA

19,00 PINTURA ERAKUSKETAren INAUGURAZIOA

Antolatzailea: Egur Arte Tailerra
✓ Kultur Etxean

19,00 NAHASTE-BORRASTE

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Kimetz elkarte

22,15 ZINEA

“El cartero (y Pablo Neruda)”

LARUNBATA

11,30 ZAZPIKIKO BILERA

✓ Zazpikiren lokalean

16,00 KARATE TXAPELKETA

✓ Kiroldegian
Antolatzailea: Olaizaga karate taldea

19,30-22,15 ZINEA

“El cartero (y Pablo Neruda)”

IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

“El cartero (y Pablo Neruda)”

20,00 SAN JUAN BEZPERAKO KALEJIRA

Partehartzaileak: Musikeskola, Haritz, Trikitilari Eskola eta Udal Txistulari Taldea

23 SAN JUAN SUAREN INGURUAN DANTZA

✓ Plaza Handian

ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“El cartero (y Pablo Neruda)”

ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“El cartero (y Pablo Neruda)”

OSTIRALA

22,30 MUSIKA SEFARDI KONTZERTUA

Kantaria: Julia Leon
✓ Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
22, larunbata:	Yudego	Yudego
23, igandea:	Yudego	Yudego
24, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
25, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
26, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
27, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
28, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

OKINDEGIA:

23, igandea: EIZAGIRRE

Zineea

El cartero (y Pablo Neruda)

Zuzendaria: Michael Radford
Antzezleak: Massimo Troisi, Philippe Noiret, Maria Grazia Cucinotta.

Pablo Neruda poetak Lipari irletan bizi izan zuen sasoian oinarritutako istorioa da. Poetaren eta egunero etxera gutunak eramaten dizkion postariaren arteko harremana kontatzen du pelikulak. Bi gizonen karakter erabat ezberdina dute, adinean ere alde handia dago bien artean baina hori ez da oztopo elkarren arteko komunikazioa egoteko, poesiaren bitartezko komunikazioa.



Azterketak bukatu ondoren ba al duzu beste zereginik?

LARRAÑAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR



DONNA

Edergintza

Pedro Muguruza, 13 - ELGOIBAR



Ileapaintzaile eta Estetizien DIPLOMATUAK

■ ILEAPAINDEGI MISTOA

- Garbitu eta orraztu . 1.200 - 1.700
- Gizonezkoen ile mozketak 900
- Tinteat, farandola, ... 2.800 - 4.000
- Rekogidoak 2.800 - 3.500

■ Aurpegi eta gorputzeko TRATAMENDUAK

■ MASAIK

■ DEPILAZIOA

- Zera epela eta beroa
- Elektrikoa (Ordu erdi) 1.000

■ MAKILAIK

- Egunerokoa, emaztegaiak, ...

■ SOLARIUMA

- Solarium eta masaiarako BONOAK

ZERBITZU ONENA IZATEKO DEITU AURREZ: 74 43 88

GREMIOEN GIDA

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Ubitarte, 2
☎ 74 13 33

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

ITYRGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

**Gremioen gida
honetan azaldu
nahi baduzu, deitu !**

☎ 74 37 04

IGELTSEKITZA

KIDEOK S.L.

San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ (989) 58 37 61

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24 - 2B
☎ 74 29 87

PATXILLO

Pedro Muguruza, 13-5
☎ (908) 31 96 42

ISOLAMENDYAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94

ELEKTRIZITATEA

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 74 13 76